

ENPRESAK. Merkataritza auzitegiak uztailaren 1ean aztertuko du kudeatzailearen jarduna

Ruvel lantegia sei hilerako zuzenketa judizialean ezarri du epaitegiak

Cavlioli administratzaile judizialak kudeatuko du enpresa, eta gaur bilduko da sindikatuarekin

Aitor Renteria | BAIONA

Baionako Epaitegiak Ruwel lantegia sei hilabetez zuzenketa judizialean ezartzea deliberatu zuen atzo. Epaitegiak Cavlioli izendatu zuen kudeatzaile gisa, eta uztailaren 1ean, zuzenketa epearen erdian, hiru hilabeteko bilduma aurkeztu beharko dio epaitegiari. Azken honek zuzenketarekin aitzina segitzea edo lantegia ixtea delibera dezake.

Arratsaldeko oren batean langileek bilkura bat egin zuten Jean Charles Personne Ruwel taldeko abokatuarekin, eta ondoren, manifestazioan abiatu ziren Baionako epaitegiraino. Zalaparta handi eta sirena hostekin hartu zituzten Wilfried Sehner eta Jean Charles Personne, Baionako Ruwel taldeko zuzendaria eta honen abokatua.

«Adeitasunez eta begi onez ikusten dut sindikatuen lana, baina lantegia ixtea duela bi urte abiatutako plana erraten dutenean, gezurretan ari dira», adierazi zuen Personnek.

Duela bi urte Alemaniako taldeak Baionako lantegiaren eremua erosi zion Ruwel-Baionari. «Orduan urtero 13 milioi euro galtzen zituen lantegiaren egoera zuzentzeko, hoberena lurrrak erostea zela iruditu zitzaigun, eta ez zen lantegia ixteko estrategia bat», gaineratu zuen Personnek, «Alemaniako Ruweleko akziodunek Wilfried Sehner izendatu zuten konfiantza osoz, Baionako lantegiaren egoera zuzentzeko gai ikusten zutelako».

Sindikatuak, aldiz, bertze irakurketa bat egiten dute, eta hala jakinarazi zion epaileari langileen abokatu Etxeberri jaunak. «Lurrrak saltzea, lanabesak eta



GAIZKA IROZ Sindikatuek Baionako merkataritza auzitegitik kanpo irakurri zieten auzitegiaren epaia Ruweleko langileei.

JEAN LOUIS MONSANG

Enpresa Batzordeko diruzaina

«Sehner jauna duela sei hilabete izendatu zuten, jadanik Ruwelek Baionako lantegia ixteko erabakia hartua zuelako»

informatikako tresnak Baionatik Alemaniara eramatea, eskariak Alemaniatik egitea eta une jakin batean izoztea; hori guztia lantegia ixteko estrategia adostu batean kokatzen da», erran zuen Etxeberri.

«Sehner jauna duela sei hilabete izendatu zuten Baionako buru, jadanik Ruwelek Baionako lantegia ixteko erabakia hartua zuelako», azpimarratu zuen Jean Louis Monsang, CFDT

J. CHARLES PERSONNE

Ruvel taldeko abokatua

«Adeitasunez ikusten dut sindikatuen lana, baina lantegia hestea bi urteko plana dela diotenean, gezurretan ari dira»

sindikatuak kide eta Ruweleko Enpresa Batzordeko diruzainak. Iaz Ruwelek 13 milioi euro galdu zituen, eta aurten, aldiz, 7 milioi. CFDTren iritziz, argi dago lantegia orain ixteko erabakia ez dela arrazoi ekonomikoetan oinarritzen, batez ere, kontuan harturik urte bukaeran Ruwelek lantegi berri bat ireki duela Alemanian, Baionakoak egiten duen lan beretsua burutzeko.

Bi aldeek beren gogoetak ordubetez aurkeztu zituzten epaileari. Ordubeteko hausnarketen ondoren, fiskalak hiru hilabeteko zuzenketa eskatu bazuen ere, epaitegiak sei hilabetez luzatzea deliberatu zuen. Ateak hertsirik burutu zen epailek, eta langileek ez zuten barkeria sartzerik izan. Ordubetez kanpoan igurikitu zuten epaia, manifestazio bat eginez.

Epaia berri ukan bezain laster, langileek itxaropena adierazi zuten. «Cavlioli kudeatzailearekin hitzartu gara bihar (gaur) goizeko 9:00etan aterabideak aztertzeke», adierazi zuen Monsangek. Epe horretan aterabide egokiren bat atzeman daitekeela adierazi zuten langileei CFDT-eko kideak, «enpresa erosteko interesa jakinarazi diguten zenbait enpresek gaia azter genezakeelako».

LABURAREN

Hiru euskal enpresak hartuko dute parte Bostongo nazioarteko arrantza azokan

Ondarroako Pescados Llorrente eta Katei Fish eta Donostiako Fitero SA enpresak Bostongo nazioarteko arrantza azokan dira atzotik. Ameriketako Estatu Batuetan egiten den arrantza azoka garrantzitsu horretara joan dira hango arrantza enpresen berri jakin eta harremanak egiteko asmoz. EAEtik 28 tona arrain produktu esportatu zituzten AEBetara iaz.

EBri altzairuaren mugasarien ordainik ez diola emango esan du Washingtonen

Ameriketako Estatu Batuek altzairuaren mugasariak igo ostean, Europako Batasunak eskatutako ordainik ez diola emango esan zuen atzo Washingtonen. AEBetako Gubernuko ordezkari Linnet Deilyk azaldu zuenez, «ordainak eskatzearekin ez da ezer konponduko», eta ez dute halakorik egingo. «Hogei herrialdetik gora dira egun babes neurriak hartu dituztenak, eta AEBek egin dugunean sekulako ika-mika sortu da, ez da bidezkoa», gaineratu zuen Washingtongo ordezkariak.

Gutuna bideratzen duen Baionako zerbitzua greba mugagabeen jarri da

Force Ouvriere eta CGT sindikatuek deitu, eta Baionako postako gutunak bideratzen dituen zerbitzua greba mugagabeen sartu zen atzo. Zuzendaritzarekin negoziaketak eramaten hasi dira. Lanpostu gehiago sortzea eta lan baldintza hobea galdegiten dituzte. Baiona Angelu eta Miarritzeko kuxetan gutun gutti edota bat ere ez da izan.

BURTSA. Datu makroekonomiko argiagoen eta mozkin hobeen zain

Bieter Memoriala bezala

J. B. Andueza

Presiopean, alegia. Ruperez baino, salmentak dira burtsa presionatzen dutenak: igoeren boladaxoa pasa ondoren, datu makroekonomiko argiagoak eta mozkin hobeen esperoan daude indizeak. Diplomazia gutxi izaten da horrelakoetan. Atzo 1.200 milioi euro inguru


salerosi ziren eta argi ikusi zen, banku handiek (-%1,5na pasa) eta Edurnezurik (-%1,88) Argentina eta NDFren arteko negoziazioen zain egon beharko dute. Energia alorrak, ordea, aurpegi hobea erakutsi zuen: petrolioaren igoerak mesedetu duen Repsol-YPFk %1,24 irabazi zuen, eta Endesak %0,7. Iberdrolak %0,48 irabazi zuen.

DATUA

Akziodunei ordaintzeko dibidendoei alternatiba topatu du Telefonikak doako kapital hedatzeekin. 50 akzio berri bat oparitzea %2ko ordainketa bat da. Bestalde, Edurnezurik Mexikon segapotoen negozioa indartu nahian, Pegaso taldearen %65 erostea erabaki du.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **-%0,56** | Azken indizea **1458,49** | Aurreko indizea **1.468,88**



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	10.562,88 (-%0,09)
Tokio (Nikkei)	11.919,3 (+%0,28)
Madrid (IBEX-35)	8.317,9 (-%0,62)
Paris (CAC-40)	4.586,75 (-%0,92)
Londres (FTSE 100)	5.258,9 (-%0,51)
Frankfurt (DAX)	5.340,67 (-%0,35)
Milan (Mibtel)	23.477 (-%0,60)

* Egutidira arte

Dibisen merkatua

Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (AEB)	0,8741
Libera Esterlina	0,6153
100 Yen (Japonia)	1,1252